

Zori txar aundi! Ni doakabe!
 Illa ez ni baiño zorunago?
 Zorakeriz yat neurea galdu,
 geroztik larri, oiñazez nago!

Gaizto az, maitasun, iruzurti,
 jas-erakutsi leun az agertzen;
 ta, odoletan dot biotza gorri,
 barru zer dana oiñazez urtzen!

ADAR GAIÑEAN

—Nok ipiñi nau emen?
 Adar gaiñean noa
 zabu-zabuka samur...
 Zabu-zabuka samur
 adar gaiñean noa.
 Nok ipiñi nau emen?

—Lo egizu, umetxo,
 adarrean polito...
 Lo egizu, ene uso,
 lo egizu, bai, lo, lo...

—Ama, ezin dot, ezin.
 Aizeak nau zirkulin
 ementxe kulunkatzen;
 txoriak abes-otsa
 zorakor dauste emoten;
 zugatza dot lorakin.
 Ama, ezin dot, ezin...

—Lo egizu, bai, kutun,
 adar izpian bigun.
 Neure biotza dozu
 adar orixe bera;

onek zaitu kulunka
 gauak tentel antzera
 irribar egitean,
 argi-begiak zuri
 ezpanak gorritzean.

POZIK ETE?

Asfaltu gaiñez jbilli nintzan,
 giza-biotzen txingar artean;
 urdin ez zana urdin zala iñosten;
 gauaren soiña baizen otzilla
 nengon atxillo giza-katean.

Naskaz neban bein erria laga
 ta jarri nintzan atzerrirako;
 ontzi barnean, urgaiñ arraunka,
 ez nintzan ase kresal igurtziz
 urte urteak aitua arteño.

Baiña noizbaiten etxerantz artuz,
 jaiot-errira elduaz noa...
 Pozik ete? Ez; ertzak izuz nau
 jarten itxaso erraiak beste.
 Gizartea yat min eraso.

Poz nadin aatik, barnea nasai;
 sorgin-izpika daukat eguzki,
 aizeak dantza kimu erpiñaz.
 Naiz-ta itxia, beroa doart
 biotz zokoan, * txingar jaurtiki.

Iñolaz ezpaita
 barneko surik
 supazter beroa
 baizen ederrik.